SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17



# 2026ko URTARRILaren 22ko OHIKO OSOKO BILKURA

# *SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 22 DE ENERO de 2026*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2026ko urtarrilaren 22an, 19:00etan, Baztango Udala osoko bilkuran bildu da, ohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi jauna alkate-udalburu dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Gorka Urtasun Saldias, Elisa Almandoz Irigoien eta Alaitz Arretxea Etxeberria, EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain, ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro, BAZTANGO INDEPENDIENTEAK - INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoak; Anastasio Nagore Garralda, UPN; taldekoa Lander Mattin Santamaria Alcocer, GEROA BAI.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Ez da bertaratu: Andoni Irigoyen Maritorena

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 22 de enero de 2026, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Gorka Urtasun Saldias, Elisa Almandoz Irigoien y Alaitz Arretxea Etxeberria, por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche y Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro, por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda, por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer por el grupo GEROA BAI.*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*No asiste: Andoni Irigoyen Maritorena*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

**1.- 2025/12/18KO EZOHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA ONARTU.** Etorritakoak bat eginez 2025/12/18ko ohiko osoko bilkuraren **akta aho batez berretsi dute**.

***1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 18/12/2025.*** *El acta de la sesión ordinaria de 18/12/2025 es **ratificada por unanimidad** de los presentes.*

**2.- XEHETASUN-AZTERLANA ORONOZKO 7. POLIGONOKO 4 LUR-ZATIAN, ELÍAS GOÑI AGUIRREK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**
Ikusita Elías Goñi Aguirrek Oronozko 7. poligonoko 4 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana. Kontuan harturik arkitektoaren aldeko txostena (erref. 2601i010), eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoa, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako hau **erabaki du:**
1.- **Hasiera batean onestea** Elías Goñi Aguirrek Oronozko 7. poligonoko 4 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana, hori dena arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2601i010 erreferentzia). Bertan Udal Hirigintza Planean indarrean dauden lerrokadurak aldatu nahi dira,

***2.- ESTUDIO DE DETALLE EN LA PARCELA 4 DEL POLÍGONO 7 DE ORONOZ, PROMOVIDO POR ELÍAS GOÑI AGUIRRE. APROBACIÓN INICIAL.***
*Visto el estudio de detalle de la parcela 4 del polígono 7 de Oronoz, promovido por Elías Goñi Aguirre. Teniendo en cuenta el informe favorable del arquitecto municipal (ref. 2601i010) y lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda:***
*1.- **Aprobar inicialmente** el estudio de detalle de la parcela 4 del polígono 7 de Oronoz, promovido por Elías Goñi Aguirre, mediante el que se pretenden modificar las alineaciones vigentes en el Plan urbanístico Municipal para implantación de una edificación residencial en parcela 4 del*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17

Oronozko 7. poligonoko 4 lur-zatian bizitegi-eraikuntza bat ezartzeko.
2.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espedientea **jendaurrean** egonen da hogei egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezen. Jendaurreko epean ez badu inork alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezkoa bada.
3.- Nafarroan kaleratutako bi egunkaritan iragarkia **argitaratzea**.
4.- Akordio hau interesdunei **igortzea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako, ohartaraziz tramitazio egintza izanik ez dagoela errekurtsoa aurkezterik**.**

*polígono 7 de Oronoz, según el informe del arquitecto asesor municipal, ref. 2601i010.*
*2.- Abrir un período de **exposición pública** de 20 días hábiles desde la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, a fin de que los interesados puedan formular alegaciones que estimen pertinentes. En caso de no producirse alegaciones en el período de información pública el documento será elevado para su aprobación definitiva, si procede.*
*3.- **Publicar** el anuncio en dos diarios editados en Navarra.*
*4.- **Notificar** el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos, advirtiendo que se trata de un acto de trámite que no puede ser recurrido.*

**3.- XEHETASUN-AZTERLANA ELBETEKO 59. POLIGONOKO 65 LUR-ZATIAN, LAURA JAÉN PÉREZEK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**
Ikusita Laura Jaén Pérezek Elbeteko 59. poligonoko 65 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana. Kontuan harturik arkitektoaren aldeko txostena (erref. 2601i012), eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoa, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako hau **erabaki du:**
1.- **Hasiera batean onestea** Laura Jaén Pérezek Elbeteko 59. poligonoko 65 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana, hori dena arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2601i012 erreferentzia). Bertan Udal Hirigintza Planean indarrean dauden lerrokadurak aldatu nahi dira, Elbeteko 59. poligonoko 65 lur-zatian bizitegi-eraikuntza bat ezartzeko.
2.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espedientea **jendaurrean** egonen da hogei egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezen. Jendaurreko epean ez badu inork alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezkoa bada.

***3.- ESTUDIO DE DETALLE EN LA PARCELA 65 DEL POLÍGONO 59 DE ELBETE, PROMOVIDO POR LAURA JAÉN PÉREZ. APROBACIÓN INICIAL.***
*Visto el estudio de detalle de la parcela 65 del polígono 59 de Elbete, promovido por Laura Jaén Pérez. Teniendo en cuenta el informe favorable del arquitecto municipal (ref. 2601i012) y lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda:***
*1.- **Aprobar inicialmente** el estudio de detalle de la parcela 65 del polígono 59 de Elbete, promovido por Laura Jaén Pérez, mediante el que se pretenden modificar las alineaciones vigentes en el Plan urbanístico Municipal para implantación de una edificación residencial en la parcela 65 del polígono 59 de Elbete, según el informe del arquitecto asesor municipal, ref. 2601i012.*
*2.- Abrir un período de **exposición pública** de 20 días hábiles desde la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, a fin de que los interesados puedan formular alegaciones que estimen pertinentes. En caso de no producirse alegaciones en el período de información pública*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17

3.- Nafarroan kaleratutako bi egunkaritan iragarkia **argitaratzea**.
4.- Akordio hau interesdunei **igortzea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako, ohartaraziz tramitazio egintza izanik ez dagoela errekurtsoa aurkezterik.

*el documento será elevado para su aprobación definitiva, si procede.*
*3.- **Publicar** el anuncio en dos diarios editados en Navarra.*
*4.- **Notificar** el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos, advirtiendo que se trata de un acto de trámite que no puede ser recurrido.*

**4.- BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOA LEKAROZKO MAXKOTARNEA-EUN, JUAN JOSÉ ECHEVERRIA, ALEJANDRO ELIZONDO, MANUEL ELIZONDO ETA UNAI ELIZONDOK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**

Baztango Udalean Javier Oteiza Larrechea arkitektoak idatzitako borondatezko birpartzelazio-proposamena aurkeztu da, Maxkotarnea EU garatzeko, Juan Jose Echeverria Azcarraga, Alejandro Elizondo Iribarren, Manuel Elizondo Iribarren eta Unai Elizondo Urrutia jaun-andreek sustatua.
Kontuan harturik arkitektoaren aldeko txostena (erref. 2601i011), eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoa, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako hau **erabaki du:**
1.- **Hasiera batean onestea** Lekarozko Maxkotarnea-EUn borondatezko birpartzelazio aldaketa. Hori guztia, bat etorriz uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina) eta Hirigintzako udal aholkulariaren txostenaren arabera (2601i011).
2.- Espedientea jendaurrean egonen da 20 eguneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eta interesdunen eskura udal bulegoetan egonen da, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten, bat etorriz uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina).
3.- Akordio hau interesatuei helaraztea, bere ezagutza eta ondorioetarako.

***4.- REPARCELACIÓN VOLUNTARIA EN LA UE-MAXKOTARNEA DE LEKAROZ, PROMOVIDA POR JUAN JOSÉ ECHEVERRIA, ALEJANDRO ELIZONDO, MANUEL ELIZONDO Y UNAI ELIZONDO. APROBACIÓN INICIAL.***

*Se presenta en el Ayuntamiento de Baztan propuesta de Reparcelación Voluntaria redactado por el arquitecto Javier Oteiza Larrechea para desarrollo de la U.E. Maxkotarnea y promovida por Juan Jose Echeverria Azcarraga, Alejandro Elizondo Iribarren, Manuel Elizondo Iribarren y Unai Elizondo Urrutia*
*Teniendo en cuenta el informe favorable del arquitecto municipal (ref. 2601i011) y lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda:***
*1.- **Aprobar inicialmente** la reparcelación voluntaria de UE-Maxkotarnea de Lekaroz. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, y con sujeción al informe emitido por el técnico municipal en urbanismo (ref. 2601i011), cuya copia se adjunta.*
*2.- De conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, se somete el expediente a información pública durante el plazo de 20 días a partir de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, durante el cual, dicho expediente se encontrará a disposición de los interesados en las oficinas municipales a fin de que puedan formular las alegaciones que estimen oportunas..*
*3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17

**5.- TOKI-ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENA, EUSKARA TEKNIKARIAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO ZERRENDAK EGITEKO HAUTAKETA-PROZESUAK KUDEATZEKO.**

Euskara teknikariak aldi baterako kontratatzeko zerrendak egiteko hautaketa prozesuak kudeatzeko toki entitateen arteko hitzarmen proposamena aztertu da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluaren eta 47-49 artikuluen arabera.

Alkateak bilkura honen espedientean 5. puntu gisa agertzen den hitzarmenarekin bat egitea bozkatzera deitu du.

Udalbatzak aldeko 11 botorekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN eta Baztango Independienteak-Independientes de Baztan), eta kontrako batekin (Geroa Bai) **erabaki du:**

**1.- Onartzea** Baztango Udalak Burladako Udalari egindako kudeaketa-gomendioa bideratzen duen hitzarmena, euskara teknikarien funtzioak betetzeko izangaien hautaprobak egiteko eta zerrenda kudeatzeko deialdia egiteko, erakunde sinatzaileei sor dakizkiekeen beharrak estaltzeko kontratatu ditzaten.

2.- **Ahalmena** ematea Baztango Udaleko alkateari haren izenean eta ordezkaritzan aipatutako hitzarmena sina dezan.

3.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratzea**, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

***5.- CONVENIO ENTRE ENTIDADES LOCALES PARA LA GESTIÓN DE LOS PROCESOS DE SELECCIÓN DESTINADOS A LA CONFECCIÓN DE LISTADOS PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL DE PERSONAL TÉCNICO DE EUSKERA.***

*Vista la propuesta de Convenio entre entidades locales para la gestión de los procesos de selección destinados a la confección de listados para la contratación temporal de personal técnico de euskera, de conformidad con el artículo 11 y los artículos 47 a 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público.*

*El alcalde llama a votar la aprobación del convenio, que consta como punto 5 en el expediente de la presente sesión.*

*El pleno por 11 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN y Baztango Independienteak-Independientes de Baztan) y 1 en contra (Geroa Bai), **acuerda**:*

***1. Aprobar** el convenio por el que se instrumenta la encomienda de gestión del Ayuntamiento de Baztan al Ayuntamiento de Burlada, para la convocatoria, realización de las pruebas selectivas y gestión de la lista de personas aspirantes al desempeño de las funciones de personal técnico euskera, a efectos de su contratación por las entidades firmantes para la cobertura de las necesidades que se produzcan.*

*2.- **Facultar** al Alcalde del Ayuntamiento de Baztan para que proceda en nombre y representación del mismo a la suscripción del convenio aludido.*

*3.- **Publicar** este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad a lo previsto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

**6.- LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA ALDATZEKO ETA LUZATZEKO GEHIGARRIA, "ALMANDOZKO (BAZTANGO UDALERRIA) KARRIKA NAGUSIKO ZEHARBIDEKO SAREAK ZOLATU ETA BERRITZEKO" OBRAK EGITEKO.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak.

***6.- ADENDA DE MODIFICACIÓN Y PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL DEPARTAMENTO DE COHESIÓN TERRITORIAL PARA LA REALIZACIÓN DE LAS OBRAS DE "PAVIMENTACIÓN Y RENOVACIÓN DE REDES EN LA TRAVESÍA KARRIKA NAGUSIA DE ALMANDOZ".***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17

Alkateak bilkura honen espedientean 6. puntu gisa agertzen den hitzarmenarekin bat egitea bozkatzera deitu du.
Udalbatzak bertaratutakoen aho bateko adostasunez honakoa **erabaki du:**
1.- Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena aldatzeko eta luzatzeko gehigarria **onartzea,** "Almandozko (Baztango udalerria) Karrika Nagusiko zeharbideko sareak zolatu eta berritzeko" obrak egiteko.
2.- Alkateari **ahalmena ematea** erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.
3.- Akordio hau interesatuei **helaraztea,** jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioetarako.
4.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratzea**.

*El alcalde llama a votar la aprobación de la adhesión al convenio, que consta como punto 6 en el expediente de la presente sesión.*
*El Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda:***
*1.- **Aprobar** la adenda de modificación y prórroga del convenio de colaboración con el Departamento de Cohesión Territorial para la realización de las obras de "pavimentación y renovación de redes en la Travesía Karrika Nagusia de Almandoz".*
*2.- **Facultar** al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*
*3.- **Notificar** el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.*
*4.- **Publicar** el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

**7.- 2026KO LAN-EGUTEGIA ETA EGUN BALIOGABEEN EGUTEGIA.**
Ekainaren 5eko 390/2025 Ebazpena ikusirik, Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2026ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena.
Abenduaren 17ko 682/2025 Ebazpena ikusirik, Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko herrietako jaiegunak zehazten baitira, 2026rako, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez direnak.
Abenduaren 18ko 145/2025 Foru Dekretua ikusirik, Nafarroako Foru Komunitatean, epeen zenbaketarako, 2026. urtean baliogabeak izanen diren egunak zehazten dituenak.
Ikusirik udaleko ordezkari sindikalek egindako proposamena.
Udalbatzak bertaratutakoen aho batez **erabaki du:**
**1.-** Baztango Udalaren zerbitzuko langileen 2026 urteko jaiegunen egutegia **onestea**, igandeez gain honako hauek izanen direlarik: urtarrilak 1 eta 6; martxoak 19; apirilak 2, 3 eta 6; maiatzak 1; uztailak 24, 27 eta 28; abuztuak 15; urriak 12 eta 30; azaroak 2; abenduak 3, 8 eta 25. Abenduaren 24an eta 31n lanaldia bukaeran 2:00 orduz murriztuko da.

***7.- CALENDARIO LABORAL Y DÍAS INHÁBILES PARA 2026.***
*Vista la Resolución 390/2025, de 5 de junio, del director general de Economía Social y Trabajo, por la que se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2026 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra.*
*Vista la Resolución 682/2025, de 17 de diciembre, del director general de Economía Social y Trabajo, por la que se determinan las fiestas locales para el año 2026, con carácter retribuido y no recuperable, en el ámbito de la Comunicad Foral de Navarra.*
*Visto el Decreto Foral 145/2025, de 18 de diciembre, por el que se declaran los días inhábiles en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra a efectos de cómputo de plazos para el año 2026.*
*Vista la propuesta realizada por los representantes sindicales del Ayuntamiento.*
*El Pleno **aprueba** por unanimidad de los presentes el siguiente acuerdo:*
***1.- Aprobar** el calendario de días festivos durante el año 2026 para el personal al servicio del Ayuntamiento de Baztan, que además de los domingos, será el siguiente: 1 y 6 de enero; 19 de marzo; 2, 3 y 6 de abril; 1 de mayo; 24, 27 y 28 de julio; 15 de agosto; 12 y 30 de octubre; 2 de noviembre; 3, 8, y 25 de diciembre. El 24 y el 31 de diciembre se reducirá la jornada 2:00 horas al final de la misma.*

Zerbitzuaren beharrak direla-eta, lan-egutegi hau aldatu ahal izango da, langilearen baldintzak arautzen dituen araudiaren arabera.

*El presente calendario laboral podrá ser modificado por necesidades del servicio, de conformidad con la normativa existente al respecto que regula las condiciones del trabajador.*

Astelehenetik ortziralera bitarteko **eguneroko lanaldia** orokorrean 7 ordu eta 30 minutukoa izanen da. Ordutegiaren zati finkoa eta beraz nahitaez bertan egotekoa 9:00etatik 15:00etara izanen da; gainerako ordutegia langileek aukeratuko dute, malgutasunez, 7:30etik 9:00etara eta 15:00etatik 16:30era.

*La **jornada diaria** de trabajo de lunes a viernes tendrá, con carácter general una duración de 7 horas y 30 minutos. La parte fija del horario, que será de presencia obligatoria en el puesto de trabajo, estará comprendida entre las 9:00 a 15:00 horas, quedando el tiempo restante para su realización, a elección del personal y con carácter flexible, entre las 7:30 y las 9:00 horas y entre las 15:00 y las 16:30 horas.*

Langileek bete beharreko gehieneko ordu kopurua (1592) koadratzearren, gehiegizko lan-orduen ondorioz sortutako ordu-poltsa izanen dute familia eta lana bateratzeko edota norberaren aferetarako. 2026rako onetsi den lan egutegiaren arabera 3 egun eta 13:10 ordu izango dira. Ordu hauek ezingo zaizkie opor egunei gehitu.

*Con objeto de cuadrar el número máximo de horas (1592) el personal dispondrá a efectos de conciliación familiar y/o asuntos propios, de una bolsa de horas generada por el exceso del tiempo trabajado, que del calendario de trabajo para el año 2026 aprobado resulta de 3 días y 13:10 horas, cuyo disfrute no podrá realizarse en conjunción con días de vacaciones.*

**2.- Adieraztea** orobat baliogabeak izanen direla 2026 urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.
Baztango Udaleko erregistro orokorra 9:00etatik 14:00ak arte egonen da irekita, jendea hartzeko, astelehenetik ortziralera, lanegunetan. Abenduaren 24an eta 31n ordutegi hori 9:00etatik 13:00etara ezarriko da.

***2.- Declarar** inhábiles a efectos del cómputo de plazos en el año 2026, todos los sábados y domingos y los días declarados festivos para las Oficinas Municipales.*
*El horario de atención al público y de apertura del registro general del Ayuntamiento de Baztan queda establecido de lunes a viernes, en días laborables, de 9:00 a 14:00 horas. El 24 y el 31 de diciembre se establece dicho horario desde las 9:00 hasta las 13:00 horas.*

**3.-** Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-oholean **argitaratzea**, bere ondorioetarako.

*3.- **Publicar** el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios de Ayuntamiento, a los efectos oportunos.*

**8.- ALKATETZAREN 623/2025 EBAZPENA, ALKATETZAKO EGINKIZUNAK ESKUORDETZEKO.**
Alkateak 623/2025 Ebazpenaren edukiak azaldu ditu, alkatearen eginkizunen delegazioari buruzkoa eta Udalbatza **jakitun** gelditu da**.**

***8.- RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 623/2025, DE DELEGACIÓN DE FUNCIONES DE ALCALDÍA.***
*El alcalde da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía 623/2025, relativa a la delegación de funciones de Alcaldía. El Pleno se **da por enterado**.*

**9.- ALKATETZAREN 626/2025 EBAZPENA, LEKAROZKO CAMPUSARI BURUZKO ERREKERIMENDUAK.**
Alkateak 626/2025 Ebazpenaren edukiak azaldu ditu: Eskaera Lurralde Kohesiorako Departamentuari, Baztango Udalari baimena eman diezaion Lekarozko Udalez Gaindiko Plan

***9.- RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 626/2025, REQUERIMIENTOS RELATIVOS AL CAMPUS DE LEKAROZ.***
*El alcalde da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía 626/2025, relativa al requerimiento al Departamento de Cohesión Territorial para que autorice al Ayuntamiento de Baztan la tramitación y aprobación de las*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17

Sektorialaren zehaztapen xehakatuak aldatzeko eskaerak bideratu eta onesteko gaitasuna izateko. Udalbatza **jakitun** gelditu da**.**

*solicitudes de modificaciones de las determinaciones pormenorizadas del Plan Sectorial de Incidencia Supramunicipal de Lekaroz.*
*El Pleno se **da por enterado**.*

**GALDE- ESKEAK**

***RUEGOS Y PREGUNTAS***

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Aste honetan bidali du gobernuak konbenio bat Lekarozeri buruzkoa eta ezin izan nuen bilerara joan. Ez dakit Lekarozeko elizaren hitzarmenari buruz hitz egin zenuten zerbait.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Irujok berarekin egindako bileran erran zuen, entzun zenuten, eliza gaizki dagoela eta gobernuak bota behar duela, arras gaizki dagoelako. Horregatik, eraistea erabaki da. Gogoratu behar da hitzarmen bat dagoela duela 14 urtetik, 2012tik, baina ezin denez bete, hori deuseztatu behar da, bertze hitzarmen batekin ordezkatuz.

Indarrean dagoen hitzarmenaren arabera, CEINek konpromisoa hartzen zuen elizan enpresa haztegi bat egiteko, halere, eliza egoera txarrean dagoenez ezin da enpresa haztegirik egin, hortaz, udaletxetik bertze konpromiso bat hartzea eskatzen zaio, hitzarmen zaharra deuseztatu eta berria egiteko. Orain negoziazioa egin behar da ea zer eman behar diguten horren truke, izan ere, ezin dute bete 2012an hartutako konpromisoa.

Irujorekin solastatu ginenean, berak erran zuen aktibazio planaren baitan martxan ditugun bi proiektuetatik ateratzen den ekintza plana diruz laguntzeko konpromisoa hartzen zuela.

Gero bildu ginen Cederna-Garalurreko Marian Cestau, aktibazio plana garatzeko kontratatutako teknikaria eta ni, Garbiñe Basterrarrekin, industria departamentuko zuzendariarekin, hitzarmen berriari buruz solasten hasteko eta bilera horren ondotik bidali dute hitzarmen zirriborro bat, emailez bidali nizuena.

Irakurri ondotik erran diogu hitzarmen zirriborro hori aldatzeko, ez duelako Irujok agindutako finantziaziorik aipatzen, ez duelako konpromiso ekonomikorik aipatzen, eta ez duelako inolako erreferentziarik egiten aintzineko hitzarmenari, ezta elizaren egoerari buruz ere.

Honi lotuta, atzo deitu ninduen Garbiñe Basterrak eta erran zidan buelta bat emanen ziola hitzarmen zirriborroari eta zerbait prestatzerakoan deituko ninduela.

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Esta semana el gobierno ha enviado un convenio sobre Lekaroz y no pude asistir a la reunión. No sé si hablasteis del convenio de la iglesia de Lekaroz.*

***Fernando Anbustegi, alcalde:** Irujo dijo en la reunión que mantuvimos con él, ya lo escuchasteis, que la iglesia está en mal estado y que el gobierno la va a derribar porque está muy mal. Por ello, se acordó su demolición. Hay que recordar que hay un convenio desde hace 14 años, desde 2012, pero como no se puede cumplir, hay que anularlo y sustituirlo por otro.*

*De acuerdo con el convenio vigente, CEIN se comprometía a construir un vivero de empresas en la Iglesia, sin embargo, debido al mal estado de la Iglesia no se puede realizar un vivero de empresas, por lo que desde el Ayuntamiento se le pide que tome otro compromiso para anular el antiguo convenio y hacer otro nuevo. Ahora hay que negociar qué nos van a dar a cambio, porque no pueden cumplir el compromiso adquirido en el 2012.*

*Cuando hablamos con Irujo, él dijo que se comprometía a financiar el plan de acción que saldrá de los dos proyectos que tenemos en marcha dentro del plan de activación.*

*Después nos reunimos Marian Cestau, de Cederna-Garalur, técnica contratada para desarrollar el plan de activación y yo, con Garbiñe Basterra, directora del departamento de industria, para empezar a hablar sobre el nuevo convenio, y tras esa reunión han enviado un borrador de convenio que os envié por email.*

*Tras su lectura le hemos dicho que cambie ese borrador de convenio, porque no menciona la financiación prometida por Irujo, porque no menciona ningún compromiso económico, y porque no hace ninguna referencia al antiguo convenio, ni a la situación de la iglesia.*

*En relación con esto, ayer me llamó Garbiñe Basterra y me dijo que le daría una vuelta al borrador de convenio y que me llamaría cuando tenga algo preparado.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/02/13

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/02/17



**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** duela hilabete batzuk ere bidali zen Iruñera eskaera bat, Almandozko eskola izateko Basaburuako eskolen erreferente edo, horren inguruan zerbait erantzun duten edo zerbait berririk dagoen.
**Elisa Almandoz, EH-Bildu:** Espero genuenaren kontra, ez dute baimenik eman. Hasiera batean esan genien jangela bat egingo genuela ikasleentzat. Gobernuak ez du onartu, jantokia eskolaren eraikin berean egon behar dela esanez, bestela ikasleek jantokiko beka galtzen dute. Orain, jantokiko laguntzaren galerak garraio-laguntzari eragiten dion ikusi beharko da.

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:*** *Hace unos meses también se envió a Pamplona una solicitud para que la escuela de Almandoz fuera el referente de las escuelas de Basaburua, si han respondido algo al respecto o si hay algo nuevo.*
***Elisa Almandoz, EH-Bildu:*** *En contra de lo que esperábamos no lo han autorizado. En principio les dijimos que haríamos un comedor para los alumnos pudieran acudir. Desde gobierno no lo han aceptado informando que el comedor tiene que estar en el mismo edificio que la escuela, si no los alumnos pierden la beca de comedor. Ahora habrá que ver si la perdida de la ayuda de comedor afecta a la ayuda de transporte.*

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:15ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 19:15 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*EL ALCALDE*

*IDAZKARIA*
*EL SECRETARIO*